

TXOSTEN METEOROLOGIKOA – UDABERRIA

Udaberria lehorra eta oso beroa izan zen, 1981-2010 periodo normalarekiko. Muturreko egoerei dagokienez, aurreko urtean baino muturreko egoera gehiago izan ziren eta 42 abisu hori igorri ziren, hainbat kausengatik, 11 hain zuzen ere. Maiatzean eta apirilean pilatu ziren abisu gehienak eta orduan igorri ziren udaberriko alerta laranjak. Maiatzean abisuak urriak izan ziren baina nabarmenak izan ziren haize-aldaketa bortitzak eta hilaren 15ean Donostialdean botatako zaparrada trumoitsoak. Bestalde, temperaturari dagokionez, denetatik izan genuen. Martxoaren 3tik 6ra mende honetako udaberriko temperatura minimo baxuenak neurtu ziren, eta maiatzaren 21ean urteko lehen abisu horia igorri zen temperatura oso altuengatik.

Prezipitazioa

Udaberria lehorra izan zen 1981-2010 denboraldia kontuan hartuta, baina ñabardura lokalekin. Araba eta Bizkaia arteko banalerroan prezipitazioa ohikoa izan zen, Goierri eta Araba hegoaldean, aldiz, oso lehorra. Euri gehien Gipuzkoako ipar-ekialdeko mendi inguruetan (Eskas 609.7 mm, Añarbe 456.7 mm, Ameraun 449.9 mm) eta kostaldean (Lasarte 403.2 mm, Oiartzun 344.9 mm) egin zuen. Araba eta Bizkaia arteko banalerroan bigarren mailako beste maximo batzuk izan ziren (Gorbea 354.2 mm, Urkiola 332 mm, Sarria 308.2 mm). Euri gutxien Araba hegoaldean egin zuen (Moreda 76 mm, Zambrana 100.9 mm, Trebiño 107.7 mm, Nanclares 109.9 mm).

Maiatza izan zen kalifikazio horretan ekarpen handiena egin zuen hilabetea, aurreko mendeko erdialdetik lehorrenen artean baitago (1952ko maiatzaren atzetik Bilbon, 2015eko maiatzaren atzetik Gasteizen eta 1952 eta 1987ko maiatzen atzetik Donostian). Martxoa eta apirila ohikoak izan ziren, kostaldeko zenbait lekutan hezeak.

Euri-egun kopurua (≥ 1 mm) ohikoa dena baino baxuagoa izan zen. Hiriburuz hiriburu, Donostian eta Bilbon 30 euri-egun inguru izan ziren, Gasteizen 24. Aipagarriak izan ziren martxoaren 1etik 17ra izandako egun hezeak eta martxoaren bigarren partean eta maiatzean izandako egun lehorrak. Hiru egoera ezberdin izan ziren aipagarriak udaberrian.

Lehena, martxoaren 31tik apirilaren 2ra jazotako ez-ohiko elurtea kota baxuetan. Apirilaren 1ean, gauean, eta 2an, goizaldean elur-kota 300-400 metrora jaitsi zen eta elur mardula egin zuen, Arabako Lautadako zenbait lekutan 10-20 cm inguru pilatu ziren.

Bigarrena, apirilaren 19tik 21era pilatutako euria. Egun horietan Gipuzkoako ipar-ekialdean 100 mm baino gehiago pilatu ziren, Eskasen 200 mm baino gehiago (Eskas 211.3 mm, Añarbe 163.2 mm, Ereñozu 118.3 mm, Ameraun 117.8 mm,

Lasarte 115.8 mm). Euriaren eraginez, ibaien mailek gora egin zuten eta gertutik jarraitu behar izan ziren Baia, Urumea eta Bidasako arroak, izan ere aforrestazio batzuk maila horira iritsi ziren.

Hirugarrena, maiatzaren 12tik 15era izandako trumoi-ekaitzak. Zenbait lekutan zaparrada trumoiatsu handiak bota zituen, txingorarekin batera; Donostialdean zaparrada oso handiak bota zituen (Miramon 33.3 mm/h, Lasarte 27.1 mm/h, Oiartzun 17.3 mm/h) eta uholdeak izan ziren kaleetan eta sotoetan.

1 Taula. Azken urteetan udaberrian pilatutako prezipitazioa Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013
Zorrotza	198.2	136.8	223.6	165.3	267.0	210.6	288.6	235.7	192.9	318.3
Lasarte	403.2	165.7	400.0	363.6	444.3	307.0	405.8	359.9	383.3	483.7
Arrasate	250.7	162.8	334.6	280.6	427.3	258.2	491.3	332.3	412.2	503
Abetxuko	144.3	118.7	187.0	148.2	273.2	102.4	174.8	142.9	205.8	236.4
Páganos	79.1	73.6	185.8	104.1	188.1	78.8	133.4	89.3	124	189.2

Tenperatura

Batez besteko tenperaturari so eginez, udaberria oso beroa izan zen, 1981-2010 denboraldi normalaren arabera. Kostaldeko batez besteko tenperatura 13.5 eta 14.5 °C artekoa izan zen, Arabako Lautadakoa 11 °C ingurukoa, hau da, ohikoa dena baino 1.1 °C altuagoa lurralde osoan. Mende honetako seigarren udaberririk beroena izan zen, beroenak 2011koa eta 2003koa dira.

Prezipitazioarekin gertatu zen bezala, maiatzak egin zuen ekarpen handiena kalifikazio horretan, erabat beroa izan baitzen, eta azken urteetako beroenen artean dago. Martxoa ere beroa izan zen, apirila, berriz, ohikoa eta Mediterraneo isurialdean hotza.

Egunez egun, aipagarriak izan ziren martxoaren 2an, 17an eta 30ean izandako tenperaturaren jaitsiera handiak, batez ere azken egun horretan jazotakoa, horrek hasiera eman baitzion denboraldi hotz bati, hau da, apirilaren lehenengo asteari. Hotzaldi horretan, apirilaren 3tik 6ra, estazio askotan tenperatura minimo absolutuen errekorrak gainditu ziren (XXI. mendeari dagokionez, behintzat). Hilaren 6ra arte izozteak adbezio hotzagatik izan ziren, eta nahikoa orokorrak izan ziren; itsasertzean izan ezik gainerako toki guztietan egin zuen izotza. Hilaren 4an eta 5ean neurtu ziren balio baxuenak (Herrera -6.7 °C, Kapildui -6.2 °C, Oiz -4.2 °C hilaren 4an; Iturrieta -8.4 °C, Trebiño -6.5 °C, Salvatierra -6.2 °C hilaren 5ean), eta kostaldean ere izotza egin zuen, batez ere ekialdean (Miramon -1.3 °C, Aizarnazabal -0.9 °C, Lasarte -0.6 °C Jaizkibel -0.4 °C, Behobia -0.1 °C hilaren 4an; Muxika -0.5 °C hilaren 5ean).



Maiatzaren 14tik 22ra beroaldia izan genuen, udako giroarekin; udaberrian lehenengo aldiz temperatura maximoak 30 °C-tik gora igo ziren. Kostaldean temperatura maximoak hilaren 18an neurtu ziren (Zorrotza 33.7 °C, Almiñe 28.3 °C, Miramon 33.3 °C, Behobia 34.9 °C). Barnealdean hilaren 21a izan zen egunik beroena eta abisu horia igorri zen muturreko temperatura oso altuengatik. Gipuzkoan (San Prudentzio 35.4 °C, Ordizia 35.3 °C, Alegia 35 °C) eta Aiaraldean (Saratxo 34.4 °C, Gardea 33.7 °C) neurtu ziren temperatura altuenak. Gipuzkoa ekialdeko zenbait estazioetan maiatzean inoiz neurtutako temperatura altuena neurtu zen (Amarun 32.6 °C, Añuntza 34.2 °C y Erreñozu 32.8 °C), baita Arkautin ere (32.1 °C).

Kantauri isurialdean intsolazioa ohikoa dena baino % 5 txikiagoa izan zen; Mediterraneo isurialdean, aldiz, intsolazioa ohikoa dena baino % 8 handiagoa izan zen. Hiriburuz hiriburu, Bilbon 451 eguzki-ordu izan ziren, Donostian 451 eguzki-ordu eta Gasteizen 547 eguzki-ordu.

Aipagarria izan zen, hilaren erdialdean, haizeak ekarritako Saharako hautsa; Celia depresioak eragindako hego haizeak ekarri zuen. Hauts-ganduaz gain, azpimarratzekoa da izan ziren temperatura minimo altuak (Andoain 17.5 °C, Zizurkil 17.2 °C, Alzola 17 °C, Ibai Eder 16.9 °C, Berriatua 16 °C, Galdakao 15.9 °C). Hala, Andoain, Añuntza eta Matxinbentako estazioetan, XXI. mendeko martxoko temperatura minimo altuenak neurtu ziren.

Taula 2: Udaberrian, azken urteetan, neurtutako batez besteko temperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013
Zorrotza	14.7	13.4	14.6	13.5	13.4	14.1	13.6	14.3	13.9	12.8
Lasarte	13.5	12.6	14.3	12.1	13.1	13.6	12.4	13.0	12.9	11.9
Arrasate	12.6	11.3	12.6	10.7	11.2	12.7	10.4	11.8	11.5	9.7
Abetxuko	10.7	9.8	11.8	10.1	10.3	11.9	9.8	11.4	11.2	9.4
Párganos	12.0	11.3	12.4	10.9	10.6	13.2	10.2	12.3	11.9	9.7








Udaberriko oinarritzko datu estatistikoak

Taula 3: Udaberriko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min. °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako auri max. l/m ²	Euri- egunak.
Zorrotza	14.7	18.7	33.7	11.2	3.5	0	198.2	27.4	28
Lasarte	13.5	17.9	34.1	9.6	-0.6	1	403.2	66.4	32
Arrasate	12.6	18.3	34.4	8.0	-1.4	2	250.7	22.2	30
Abetxuko	10.7	16.4	30.9	5.6	-4.4	12	144.3	14.2	24
Párganos	12.0	17.1	31.9	7.3	-2.3	5	79.1	15.0	16




Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak




■ Pilatutako prezipitazioa —●— Temperatura minimoa — Temperatura batez bestekoa —●— Temperatura maximoa

Prezipitazioaren jokaera


Behatutako prezipitazioa
Precipitación observada




Prezipitazio normala
Precipitación normal



Prezipitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normal



Prezipitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal





Muturreko balioak

Udaberrian 42 abisu hori igorri ziren, ondoren azaltzen diren kausen arabera banatuta: 2 prezipitazio iraunkorragatik, 1 prezipitazio handiagatik, 7 elurragatik, 8 haizeagatik haizeguneetan, 5 haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan, 6 olatuen altueragatik nabigaziorako, 4 kostaldeko inpaktuagatik, 3 enbatagatik, 3 izotzagatik, 1 tenperatura oso altuengatik eta 2 baso-sute arriskuagatik.

Horrez gain, apirilean 2 alerta laranja igorri ziren elurragatik.

Ondoren gertaera esanguratsuenen sorta aurkezten da:

Martxoa

- Hilaren 3ko egunaren bigarren partean, itsasaldetik zetorren aire masa hotz bat penintsula ipar-mendebaldera zabaldu zen eta hilaren 4an Kantaurira iritsi zen. 850 hPa-eko mailan, tenperatura -2 °C-ren azpitik kokatu zen, puntualki -4 °C-ren bueltan kokatu zen. Elur-kotak behera egin zuen eta hilaren 5eko goizaldean 1000 m-ren azpitik kokatu zen (Oizen tenperatura 0-1 °C artera jaitsi zen. Hilaren 4an prezipitazioa oso ugaria izan zen Kantauri isurialdearen ekialdean, zaparrada mardulak bota zituen (8 mm/h-ko maximoekin). Hilaren 5ean, elurraren mailak beherako bidetara eutsi zion, baina prezipitazioa urriagoa izan zen; Mungian 12.7 mm pilatu ziren. Goizean goiz eta egunaren azken orduetan elur-kota 800 m-ren bueltan kokatu zen, eta eguerdi partean 1000 m ingurura igo zen; goizean goiz ekialdean gehiago jaitsi zen eta Egino eta Agurainen tenperatura 2 °C inguruan kokatu zen. Hilaren 6an, goizean goiz, berriro ere jaitsi eta 700 m-ren bueltan kokatu zen; Urkiolan tenperatura 1 °C-ren bueltan ibili zen, baina zonalde horretan apenas prezipitatu zuen. Prezipitazioa, batez ere Bizkaiko kostaldean egin zuen (Mungia, 11.9 mm).

Ostirala, hilak 4: Abisu Horia elurragatik barnealdean 21etatik 24etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 5: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Igandea, hilak 6: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 21etik aurrera, presio altuak hedatu ziren Europako eremu zabal batean, erdigunea Europa erdialdean edo kontinentearen ipar-ekialdean zutela. Egun haietan, hego-ekialdeko haizea izan zen protagonista, eta gogor jo zuen, bereziki barnealdean. Hala, hilaren 21ean barnealdeko zenbait lekutan 100 km/h-tik gorako boladak neurtu ziren. Hilaren 22an, goizaldean, haizea are gehiago indartu zen, eta hego-ekialdeko (Oiz) edo eki/hego-ekialdeko bolada bortitzekin ibili zen Araba ekialdean (Ilarduian neurtu zen hilabeteko boladarik gogorrena) eta 100 km/h-tik gorako ufadekin haizeguneak ez diren lekuetan edo kostaldeko zenbait lekutan (Matxitxako). Hilaren 23ko goizaldean, haizeak oraindik gogor jotzen zuen, 100 km/h-ko abiadura gaituz ipar-mendebaldeko haizeguneetan. Goizean goiz, ordea, haizeak indarra galdu zuen.



Estazioa	Haize-bolada, hilak 21 (km/h)	Ordua UTC
Oiz	113.3	11:30
Zizurkil	111.9	23:50
Herrera	105.8	20:20
Ilarduia	104.8	17:00
Orduña	102.7	22:30

Estazioa	Haize-bolada, hilak 22 (km/h)	Ordua UTC
Ilarduia	134.1	03:30
Oiz	127.4	05:10
Orduña	114.3	01:50
Matxitxako	109	22:00
Beluntza	108.6	06:30
Kapildui	108.6	04:10
La Garbea	107.2	06:10
Untzueta	103.7	21:10
Zizurkil	102	00:00
Gardea	91.4	04:30
Navarrete	89.6	18:30
Zegama	89.6	04:20
Igorre	89.2	12:20

Estazioa	Haize-bolada, hilak 23 (km/h)	Ordua UTC
Oiz	110.4	00:00
Matxitxako	105.5	00:30
Navarrete	88.6	01:30
Zizurkil	86.8	00:20

Astelehena, hilak 21: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 21etatik 24etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 22: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 15etara ordu lokala.

Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan 00etatik 15etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 23: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 09etara ordu lokala.

Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan 00etatik 09etara ordu lokala.

Apirila

- Hilaren 1ean eta 2an depresio bat zegoen Italia iparraldean eta antizikloi bat Atlantikoan, Britainiar uharteen mendebaldean. Goi-geruzan aska bat zegoen Europa mendebaldean, barnean aire masa hotzarekin, eta egoera horrek ezegonkortasun handia eragin zuen Bizkaiko golkoan. 850 hPa-eko mailan ere aire masa hotza zegoen (-5/-6 °C). Horrela, hilaren 1ean, goizaldean, 400-500 m-tik gora elurra egin zuen, nahiz eta behin fronte pasa ostean prezipitazioa txikia izan. Goizean prezipitazioen intentsitatea handitu egin zen, frontearen ondoren sartu ohi diren zaparradekin. Gainera, Kantauri



isurialdean noizean behin trumoi-ekaitzak izan ziren eta txingorra bota zuen, bereziki kostaldean. Donostialdean bota zuen txingor-zaparrada batek trafiko arazoak sortu zituen goizean goizeko puntako orduetan. Gainerako orduetan prezipitazioa noizbehinkakoa izan zen, eta nahiz eta elur-kota 500-600 m inguruan egon, apenas zuritu zuen, izan ere aterrun luzeak izan ziren. Arratsalde amaieran elur-kota berriro jaitsi egin zen. Prezipitazio-kaleak sortu ziren eta 300-400 m-tik gora elurra mardul egin zuen. Horrela, hilaren 1etik 2rako gauean Arabako Lautadako zenbait lekutan 10-20 cm inguru pilatu ziren. Hilaren 2an, egunez, elur-kota gorago egon zen, 500 m inguruan. Hilaren 2an, arratsaldean, atertzera egin zuen. Egunaren amaieran prezipitazioa txikia eta noizbehinkakoa izan zen eta kota baxuetan zegoen elurra urtu egin zen. Hilaren 3an elur-kota baxu egon zen, baina prezipitazioaren intentsitatea gero eta txikiagoa izan zen eta arratsalde-gauean ia ez zuen euririk egin.

Ostirala, hilak 1: Alerta Laranja elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 2: Alerta Laranja elurragatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

Abisu Horia elurragatik barnealdean 10etatik 24etara ordu lokala.

Igandea, hilak 3: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 12etara ordu lokala.

- Elurtearen ondoren, hilaren 3ko arratsalde-gauean, hodeiak gutxitu egin ziren. Horrela, hilaren 4an, izotza egin zuen barnealdean eta zenbait lekutan handia egin zuen, bereziki Araban. Gipuzkoako kostaldeko zenbait lekutan ere egin zuen izotza. Hilaren 5eko goizaldean ere zerua nahiko garbi egon zen eta berriro egin zuen izotza; Mediterraneo isurialdean izotz txiki-handia eta txikia Kantauri isurialdearen barnealdean. Iturrietan izotz gogorra egin zuen. Azken orduetan Arabako zenbait lekutan izotz txikia egin zuen. Hilaren 6an ere izotza egin zuen. Hilaren 7an ere izotz txikia egin zuen, baina Arabako zenbait lekutan soilik. Hilaren 8an hegoaldeko haizea ibili zen eta tenperatura minimoak nabarmen edo asko igo ziren.

Estazioa	Temperatura minimoak, hilak 4 (°C)
Herrera	-6.7
Kapildui	-6.2
Albaina	-4.6
Navarrete	-4.4
Roitegi	-4.2
Abetxuko	-2.2
Lasarte	-0.6
Zorrotza	4.3

Estazioa	Temperatura minimoak, hilak 5 (°C)
Iturrieta	-8.4
Trebiño	-6.5

Pagoeta	-6.4
Albaina	-6.3
Salvatierra	-6.2
Abetxuko	-4.4
Lasarte	1.1
Zorrotza	3.8

Astelehena, hilak 4: Abisu Horia tenperatura minimoak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 5: Abisu Horia tenperatura minimoak/izotzagatik Gipuzkoako kostaldean eta barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

- Hilaren 20an depresio bat kokatu zen Levanten eta goi-geruzan depresio hotz bat Iberiar penintsulan. Euria ugari eta sarri egin zuen Kantauri isurialdearen ekialdean, gainerako tokietan euria ez zuen hain sarri egin. Arratsaldegauean Mediterraneoan zegoen depresioari loturiko fronte okluito bat Kantauri ekialdera mugitu zen eta euriaren intentsitatea handitu egin zen EAE osoan; Kantauri isurialdearen ekialdean euri ertaina eta iraunkorra egin zuen. Egin zuen euri kopuru handiaren ondorioz egun amaierarako ibaien maila igo egin zen eta hilaren 21eko goizaldean maila horia gainditu zen Bidasoako arroan (Jaizubia) eta Urumeako arroan (Añarbe eta Ereñozu). Gainera, Sarriako estazioak, Baia errekan, une batean maila horia gainditu zuen eta Jaizubiako estazioak maila laranja ordu batzuetan. Goizean atertzera egin zuen eta pixkanaka ibai eta erreka mailak jaitsi egin ziren; eguerditik aurrera estazio guztiak maila berdean zeuden.

Estazioa	Pilatutako prezipitazioa, hilak 20 (mm)
Eskas	110.2
Añarbe	89.9
Oiartzun	68.5
Lasarte	66.4
Ereñozu	64.9

Estazioa	Pilatutako prezipitazioa, hilak 21 (mm)
Eskas	61.6
Añarbe	45.6
Ameraun	39.7

Asteazkena, hilak 20: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Gipuzkoan 09etatik 24etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 21: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Gipuzkoan 00etatik 09etara ordu lokala.

Maiatza

- Hilaren 15ean, goizean, hego-mendebaldeko haizea indartsua izan zen (Matxixako, 87.8 km/h) eta kostaldeko hainbat tokitan tenperatura maximoak 30 °C-tik gorakoak izan ziren (Higer, 31.2 °C). Arratsaldearen hasieran haizea mendebal/ipar-mendebaldera aldatu zen zakarki, bolada gogorrekin. Hori bai, mendebal/ipar-mendebaldeko haize-bolada horiek hego-mendebaldekoak baino ahulagoak izan ziren orokorrean. Haizea aldatu ondoren, kostaldean tenperatura oso azkar jaitsi zen, 8-9 °C inguru ordu-erdian. Haizea mendebal/ipar-mendebaldera aldatu zenean Gipuzkoako kostaldean gunek konbektiboak garatu ziren eta ipar-ekialdean trumoi-ekaitz handiak izan ziren. Donostialdean zaparrada oso handia bota zuen eta eraikin batzuetan uholdeak eragin zituen.

Estazioa	MIM-ko haize-bolada, hilak 15 (km/h)	Ordua UTC
Punta Galea	39.2	12:50
Galindo	49	13:10
Matxixako	50.8	13:30
Mutriku	46.2	13:40
Santa Clara	49.8	14:10
Miramon	42.7	14:20

Estazioa	Pilatutako prezipitazioa, hilak 15 (mm/h)
Miramon	33.3
Lasarte	27.1
Oiartzun	17.3

Igandea, hilak 15: Abisu Horia itsasaldeko arriskua: enbatagatik 14etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 21an aire-masa bero bat penintsula iberikoan eta Kantauri itsasoan zabaldu zen. Eguerdian erdi-mailako geruzan airearen tenperatura 18 °C ingurukoa izan zen. Egunaren erdiko orduetan hego-osagaiko haizea ibili zen eta tenperatura azkar igo zen, batez ere Gipuzkoako barnealdean, hego-ekialdeko haizea izan baitzen nagusi. Bizkaian tenperatura ez zen hainbeste igo, eguerditik aurrera ipar-mendebaldeko haizea ibili zelako han. Arratsaldearen hasieran gainerako tokietan tenperaturak gora egiten jarraitu zuen eta Gipuzkoako ekialdeko maximoak 35 °C-tik gorakoak izan ziren. Ordizian tenperatura maximoa 35.3 °C-koa izan zen, maiatzean han neurtutako tenperaturarik altuena. Gipuzkoako ekialdeko beste zenbait tokitan ere maiatzeko errekorra hautsi egin zuten maximoek: Ameraun, Agauntza eta Ereñozu (32.6 °C, 34.2 °C eta 32.8 °C, hurrenez hurren), baita Arabako hiriburutik gertu dagoen estazio batean, Arkauti (32.1 °C).

Zona	Temperatura maximoa, hilak 21 (°C)
Kostaldea	23.8
Kantauri zonaldeko barnealdea	32
Iragate-zona	31.4
Ebro ondoko eskualdea	32.3

Estazioa	Temperatura maximoa, hilak 21 (°C)
San Prudentzio	35.4
Ordizia	35.3
Estanda	35
Alegia	35
Oñati	34.6
Saratxo	34.4

Larunbata, hilak 21: Abisu Horia muturreko temperatura oso altuengatik barnealdean 14etatik 19etara ordu lokala.

- Hilaren 22an ere temperatura maximoak 30 °C-tik gorakoak izan ziren, hilaren 21a bezain beroa izan ez arren. Aiaraldeko zenbait lekutan temperatura maximoak 34 °C ingurukoak izan ziren (Saratxo, 34 °C; Gardea, 33.9 °C). Arratsaldearen hasieran Bizkaian haizea ipar-mendebaldera aldatu zen eta temperaturak behera egin zuen bolada gogor batzuk baino ez ziren neurtu. Haizearen aldaketa kostaldeko beste zenbait lekutan zabaldtu zen, baina modu irregular batean. Ordu batzuk pasa ondoren, Higerren hegomendebaldeko haizea zebilen oraindik. Orduak pasa ahala, mendebal/ipar-mendebaldeko haizea indartuz joan zen eta Bizkaiko kostaldean haize-bolada oso gogorrak izan ziren, haien artean aipagarriena Matxixakon neurtutakoa, 90.3 km/h.

Estazioa	MIM-ko haize-bolada, hilak 22 (km/h)	Ordua UTC
Matxixako	90.3	18:40
Almike	78.3	16:20
Punta Galea	75.1	15:40

Igandea, hilak 22: Abisu Horia itsasaldeko arriskua: enbatagatik 15etatik 19etara ordu lokala.

Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Tenperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeko daude.